

Donejakue Bidea Euskadin

El Camino de Santiago en Euskadi



Gomendioak

RECOMENDACIONES

Planifikatu hurrengo eguneko etapa: Erromesen aterpe asko udan bakarrik irekitzen dituzte.

Komeni da Bidea bakarrik ez egitea.

Ez ahaztu dokumentazioa, kredentziala eta dirua –edo kreditu-bartela–, eta kontu handia izan baliozko objektuekin.

Eraman etapa bakoitzerako janari eta edari nahikoa eta larrialdietako botika-kutxa.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Komeni da mugikorraren bateria ongi beteta eramatea.

Jarri arreta: zenbaitetan gezi horiak aurkituko dituzu, seinaleztapen ofizialarekin bat ez datozenak. (Mapan -----)

Errespetatu ingurunea eta gainerako erromesak.

Planifica la etapa del día siguiente: Muchos albergues de peregrinos sólo abren en verano.

Es aconsejable realizar el Camino en compañía.

No olvides documentación, credencial y dinero –o tarjeta de crédito– y ten cuidado con los objetos de valor.

Lleva comida y bebida suficiente para cada etapa y botiquín de urgencia.

Lleva calzado y ropa adecuado teniendo en cuenta la predicción del tiempo.

Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.

Presta atención: en ocasiones encontrarás flechas amarillas que no coinciden con la señalización oficial. (En el mapa -----)

Respecta el entorno y a los demás peregrinos.

Etapa laburra eta erraza da; mendealderantzko ibilbidean Arabako bi ibai garrantzitsuenak zeharkatuko ditugu, Zadorra eta Baia, zubi ezin ederragoen gainetik. Trebiñuko lurretan barrena hasi eta Arabako Behe Haranetan barneratuko gara; Rivabellosa da inguruko herri garrantzitsua, eta segidan, Miranda Ebroko lurretara iritsiko gara.

Etapa corta y de fácil trazado que en su recorrido hacia el oeste atraviesa los cursos de dos de los ríos más importantes de Álava, el Zadorra y el Bayas, vadeándolos por espléndidos puentes. Tras un primer tramo por tierras treviñesas se adentra en los Valles Bajos Alaveses con la localidad de Rivabellosa como centro neurálgico de la zona para seguidamente contactar con las tierras de Miranda de Ebro.



KMZ



GPX



Bide zatia / Tramo

La Puebla de Arganzón (Argantzun) > Armiñón

km 0**ARGANTZUN.** Udalerriatik aterako gara antzinako N-1 errepidetik hegoalderantz, errepidea albo batera utziko dugu Burgetarantz doan saihesbidea hartzeko, eta egungo errepide nazionalaren azpitik igaro beharko dugu.

km 4**BURGETA.** Herria zeharkatu behar dugu elizara iritsi arte, eta mendealderantz igotzen den partzela-bidetik jarraitu behar dugu. Pisten bidegurutze batera iritsitakoan, behearantz hasiko gara "erromatarren bidea" esaten zaion bide zaharretik. Bide horretatik Estavillora iritsiko gara, baina lehenago garbitoki zahar baten ondotik igaro behar dugu; iturri bat ere bada bertan.

km 6,3.....**ESTAVILLO.** Herri txiki hori inguratuko dugu gure ezkerraldean utziz, eta errepidetik jarraituko dugu. Laster, Bidearen saihesbidetik Santo Domingo de la Calzadara eramango gaituen desbideratzera iritsiko gara, Berantevilla, Zanbrana, Gatzaga Buradon eta Haro herrietan barrena. Errepidetik jarraituko dugu AP-68 autobidean sartzeko biribilguneetaraino, Armiñonera iristeko.

km 0**LA PUEBLA DE ARGANZÓN.** Salimos del municipio por la antigua N-1 dirección sur y la abandonamos para tomar el desvío a Burgueta que nos hará pasar bajo la actual nacional.

km 4**BURGUETA.** Atravesamos el pueblo hasta alcanzar iglesia y tomamos la parcelaria que asciende hacia el oeste. Al llegar a un cruce de pistas comenzamos a descender tomando el viejo camino conocido como "camino de los romanos". Este camino conduce a Estavillo, pasando antes junto a un antiguo lavadero donde además encontramos una fuente.

km 6,3.....**ESTAVILLO.** Apenas bordeamos esta pequeña población que quedará a nuestra izquierda y continuamos por la carretera. Pronto alcanzamos el desvío de la variante del Camino que conduce a Santo Domingo de la Calzada por Berantevilla, Zambrana, Salinillas de Buradón y Haro. Seguimos por la carretera hasta las rotondas de acceso a la AP-68 para alcanzar Armiñón.



DONEJAKUE BIDEA

CAMINO DE SANTIAGO

Barrualdeko Bidea **7B** El Camino del Interior

LA PUEBLA DE ARGANZÓN (ARGANTZUN) > MIRANDA DE EBRO

Km.
17

131m.

3h.40'



United Nations
Educational, Scientific and
Cultural Organization



Routes of Santiago de Compostela:
Camino Francés and Routes of Northern Spain
inscribed on the World Heritage List in 1993

EUSKADI
BASQUE COUNTRY





Ez geratu ezagutu gabe! ¡NO TE LO PIERDAS!

Armiñónen Zadorra ibaia eta Rivabellosan Baia ibaia zeharkatzeko dauden Erdi Aroko zubiek –6 eta 4 arku dituzte, hurrenez hurren– aspaldiko garaietara atzera eginaraziko gaituzte, mandazainen, bidaiarien eta erromesen garaietara, hain zuzen.

Los puentes de origen medieval sobre el Zadorra y el Bayas en Armiñón y Rivabellosa con 6 y 4 arcos respectivamente nos harán retrotraernos a tiempos pasados al seguir los pasos de antiguos arrieros, viajeros y peregrinos.



Telefono interesgarriak TELÉFONOS DE INTERÉS

Añanako Koadrillako Turismo Bulegoa
Oficina de Turismo de la Cuadrilla de Añana 945 351 386

Miranda Ebroko Turismo Bulegoa
Oficina de Turismo de Miranda de Ebro 947 320 303

Donejakue bideen lagunen elkartea (Araba)
Asociación de Amigos del Camino de Santiago (Álava) 945 144 794
609 472 446

Donejakue bideen lagunen elkartea (Miranda Ebro)
Asociación de Amigos del Camino de Santiago (Miranda de Ebro) 947 325 835
636 556 402

Larrialdiak
Emergencias



Bide zatia / Tramo

Armiñón > Miranda de Ebro

km 7,3 - **ARMIÓN.** Armiñón herrian sartu eta eskuinaldera desbideratu behar dugu: Zadorra ibaia zeharkatu behar dugu Erdi Aroko zubi ikusgarritik. Errota zaharren ondotik igaro ondoren, trenbidearen azpitik hego-ekialderantz joko dugu Rivabellosara doan partzela-bide batetik. Goidaldean, ur-deposito baten ondoan, Rivaguda eta Lacorzanilla herrietan barrena Miranda Ebrora eramango gaituen desbideratzea aurkituko dugu. Bidean aurrera egingo dugu eta, zenbait tokitan, antzinako harri-zolaren arrastoak ere ikus ditzakegu.

km 11,8 - **RIVABELLOSA.** Autobidearen azpitik igaro ondoren, Rivabellosan sartuko gara; elizaren ondotik igaro eta udaletxerantz joko dugu plaza zeharkatuta. Herriatik aterako gara errepidetik, eta handik gutxira Baia ibaia zeharkatuko dugu. Ezkerretara desbideratu behar dugu partzela-bideetatik aurrera egiteko, laborantza-lurretan barrena. Laster Burgosen eta Arabaren arteko muga adierazten duen mugaria aurkituko dugu. Autobidea gaineko pasabidetik zeharkatuko dugu eta Miranda Ebroren kanpoaldean dagoen industrialde batera iritsiko gara.

km 17 - **MIRANDA EBRO.** Burgoseko herri honen inguruan bukatzen da "Barrualdeko Donejakue Bidea", Gipuzkoan eta Araban barrena ibili ostean. Frantziako Donejakue bidearekin bat egiteko, Burgos hiribururaino joan behar da (83 kilometro inguru).

km 7,3 - **ARMIÓN.** Entramos en Armiñón y nos desviamos a la derecha para cruzar el río Zadorra por el magnífico puente medieval. Tras pasar junto al antiguo molino, pasamos bajo las vías del ferrocarril y nos encaminamos dirección sureste por una parcelaria hacia Rivabellosa. En el alto, junto a un depósito de aguas encontramos el desvío que conduce a Miranda de Ebro por Ribaguda y Lacorzanilla. Nosotros continuamos de frente por el camino que a tramos deja ver restos del antiguo empedrado.

km 11,8 - **RIVABELLOSA.** Tras pasar bajo la autopista, entramos en Rivabellosa pasando junto a la iglesia y seguimos en dirección al ayuntamiento atravesando la plaza. Salimos del pueblo por la carretera, cruzando al poco el río Bayas. Tomamos un desvío a la izquierda para continuar por parcelarias entre tierras de cultivo. Pronto encontramos el mojón de piedra que indica la muga entre Burgos y Álava. Salvaremos la autopista por un paso elevado alcanzando un polígono industrial ya a las afueras de Miranda de Ebro.

km 17 - **MIRANDA DE EBRO.** En la inmediaciones de esta localidad burgalesa se pone fin al "Camino de Santiago del Interior" que recorre las tierras de Gipuzkoa y Álava. Para conectar con el Camino de Santiago Francés habrá que continuar hasta Burgos capital, a unos 83 kilómetros de distancia.

